

PRENTSA-OHARRA

Hautzaro Haur Eskola foru-arauekin bat egokitzeko obrak hilabete honetan amaituko dira

Hirigintzak gaur egin du bisita egindako jarduketak ikusteko, zeinei esker eraikina handitu eta ibiltari, ertain eta handien moduluak erabat zaharberritu baitira

Hautzaro Haur Eskola haur-eskolen betekizunak eta baldintzak ezartzen dituen 28/2007 Foru Dekretura egokitzeko lanak martxoan amaituko dira. Iruñeko Udalak irailean heldu zien egokitzapen-lanei, Excavaciones Fermín Osés SL enpresari esleitu zizkion lanak, 549.993,40 euroan (BEZa barne). Hirigintza Batzordeko kideek gaur goizean bisitatu dituzte obrak.

Esku-hartzean, nagusiki, bi jarduketa egin dira. Batetik, barrutik eraitsi egin da ibiltari, ertain eta nagusiak dauden moduluko hegala, hartara erabat berrituta eraikinaren zati hori. Bestalde, eraikuntza lurzatiaren mugaraino handitu da –Maiteminduen pasealekuarekin bat egiten duen punturaino–, eta aipatutako moduluak 28/2007 Foru Dekretuak ezarritako irizpide berrituekin bat banatu daitezke. Modu horretan egungo Haur Eskolaren espiritua mantentzen da, zeinak oinarri baitu, funtsean, estalitako patio izatea haur-eskolako bizitzaren erdigunea. Eraberritze-lanekin, gune hori modulu guztien bihotz bihurtzen da, guztiek bertara jotzen baitute.

Esku-hartze ez oso ikusgarria kanpoaldetik baina garrantzitsua barrualdetik

Administrazio- zein zerbitzu-guneetan eta bularreko haurren moduluan jarduketa txikiak besterik ez dira egin, instalazioekin lotuta, hala nola megafonia, suteak, eta, unean-unean, ur hornidura. Proiektua jada existitzen zen eraikin baten handiagotzea denez –non aldi berean, aurrez, hainbat esku-hartze egin baitira–, esku-hartzeak nabariak izan dira barrualdetik, baina mimetikoak kanpoaldetik, halako moduan non handiagotzea ez baita ia nabaritu. Hori horrela, gune berriak sortu dira, haurrentako seguruagoak eta baldintza hobeak dituztenak tenperatura, aireztapena eta argiaz bezainbatean.

Hautzaro Haur Eskola, Arrotxapean kokatua, itxita egon izan da obrak gauzatu bitartean, eta ikasleak, ikasturte hasieratik, bertatik gertu dagoen Rotxapea HEko instalazioetara doaz. Ikastetxe horretan ere hainbat birmoldaketa-lan egin ziren udan, zentroak zituen hezetasun-arazoekin amaitzeko. Aurreikusitakoaren arabera, ikasleak datorren ikasturtean itzuliko dira Hautzaro HEra.



2,3 milioi euroko inbertsioa haur-eskolatan

Modu horretan aurrera egiten du iaz abiatutako planak, udal sareko eskola guztiak haur-eskolen betekizunak eta baldintzak ezartzen dituen 28/2007 Foru Dekretura egokitzeko. Planak, soilik berritze-lanetarako, 2,3 milioi euro baino gehiagoko inbertsioa dakar 2020-2021eko ikasturtean Iruñeko haur-eskolak egokituta egon daitezen. Kopuru horrek halako 20 baino gehiago joko du Iruñeko Udalak Haur Eskolen sarean 2011-2015eko aldian egindako inbertsioa, orduan 105.433 euro inbertitu baitziren hobekuntza-lanetan, eta horrek ez zuen berekin ekarri zentroak egokitzea foru-legedian ezarritakora.

Plana abiatu aurretik, Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoa osatzen duten hamabi haur-eskoletatik lauk betetzen zuten araudia: José María Huarte, Hello Buztintxuri, Hello Azpilagaña eta Printzearen Harresi. Une honetan, 8 dira, behin Izartegi, Mendillorri, Goiz Eder eta Haurtzaron egindako egokitzapen-lanak egin eta gero. 2018ko amaieran kopuru hori 9raino igoko da, Egunsentin egingo diren lanen ondorioz. Hortaz, Mendebaldeko proiektua eta Donibanekoa geratuko dira egiteke bakarrik. Egokitzapen-plana amaitzean Rotxapea HE familiendako gune bihurtuko da, eta haren lekua hamabigarren haur-eskola gisa Lezkairun egitekoa denak beteko du; izan ere, aurten hasiko da eskola horren proiektua.

Iruñean, 2018ko martxoaren 21ean

